ITSASONDOKO IRAUNKORTASUN DIAGNOSTIKOA

2013ko Ekaina

Aholkularitza teknikoa: LAIA S.Coop.

AURKIBIDEA

1. SARRERA…….. 3

1.1. EAEko Tokiko Agenda 21en ezarpen, kudeaketa eta jarraipen eredua……. 3

1.2. Itsasondoko Agenda 21 prozesuaren aurrekariak……. 4

2. PROZESUAREN FASEAK ETA EMAITZAK…… 5

2.1. Lan programa…….. 5

2.2. Sortutako dokumentuen zerrenda……. 5

3. SINTESI DIAGNOSTIKOA ……. 6

3.1. Lurralde arloko gaiak……. 8

3.2. Baliabide naturalak, hondakinak eta ingurumen kalitatea…… 20

3.3. Sentsibilizazioa, partaidetza eta abrne-koordinazioa…….. 43

3.4. Garapen soziala eta ekonomikoa…….. 49

1. SARRERA

1.1. EAEKO TOKIKO AGENDA 21EN EZARPEN, KUDEAKETA ETA JARRAIPEN EREDUA

EAEn Tokiko Agenda 21eko prozesuak, jarraian aurkezten den eskeman zehazten diren faseen bidez burutzen dira: **Martxan jartzea, Diseinua** (diagnostkoa eta plangintza barne), eta **Ezarpen eta jarraipena**. Azkenengo fasea aurreratuta dagoenean, berrikuspena egin behar da: Diagnostikoa eguneratu eta Ekintza-Plana berritzeko.

1. irudia: *EAEko Udalerrietan Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak Berrikusteko Gida Metodologiko*tik ateratako eskema orokorra.

Fase bakoitzaren ezarpenerako, Ud¡dalsarea 21ek, Iraunskortasunerako Udalerrien euskal Sareak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalsarea 21eko kide guztientzat amankomunak diren metodologiak zehazten ditu, sarean lan egingo dutela bermatuz eta EAEko Agenda 21en homogeneotasuna bermatzeko.

Eusko jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahia, Tokiko Agenda 21 prozesuen ezarpena ahalik eta modu eraginkorrenean eman dadin bermatzea da. Honetarako, udalei hainbat zerbitzu eskeintzen zaizkie: Ekintza-Planen ebaluazioa eta programazioa gauzatzeko tresnak, tokiko iraunkortasun adierzaleen kalkulurako laguntza-programa, ekintza-planean zehaztutako ekintza konkretuak diruz-laguntzeko programak, gida ezberdinak (txosten hau oinarritu den *EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berriksuteko Gidaliburu metodologikoa*, esaterako), etab.

1.2. ITSASONDOKO AGENDA 21 PROZESUAREN AURREKARIAK

Itsasondo 2004an hasi zen Agenda 21 prozesuarekin martxan, eskualdeko gainerako 17 udalerriekin batera UDALTALDE 21 GOIERRI lan-taldearen barruan. Lan honen emaitza moduan, 2005ean onartu zuen Itsasondoko Udalbatzak Itsasondoko Agenda 21eko lehenengo Ekintza Plana.Plan honek Udalaren iraunkortasun mailako helburuak zehaztu eta bide bat martxan jartzea ekarri zuen.

Ordutik eta 2009. urterarte Udala, Ekintza-Planean garatutako ekintzak aurrera eramateko lanean aritu zen. Ekintza- Plana garatzearekin batera, Tokiko Agenda 21ak Ebaluatu eta Jarraitzeko programetan ere parte-hartu zuen Itsasondoko Udalak, planaren exekuzio maila eta iraunkortasun adierazleen kalkulua burutu zelarik.

2005-2009 urte hauetan orduko plana aztertu eta ebaluatuta, 71 ekintza jasotzen zituen Ekintza-Planetik 7 geratzen ziren hasi gabe. Hau honela, 2010. urtean Udalak herritarrekin batera burutu zen hasunarketa bati ekin zion. Ondorio moduan, Herri Plan berri baten beharra atzeman zen, herritarren parte-hartzearekin batera bideratuko zen Herri Plan baten beharra.

Itsasondoko Agenda 21eko lehenengo Ekintza Plana diseñatzerakoan izandako esperientziatik abiatuta, Udalak bideratu duen Herri Plan berri honen garapena Agenda 21ak ezartzen duen metodologiarekin bideratzea adostu zuen. Metodologia honek, herritarren parte-hartzeaz osatutako Herri Plan bat gauzatzeaz gain, parte-hartze kultura sustatu, herri kohesio eta identitatea indartzea ahalbidetzen duelako. Era berean, behin Plana esku artean izanda bere jarraipen eta ebaluaketarako dauden tresnak erabiliz, Herri Plan erabilgarri, praktiko eta ebaluagarri bat izateko aukera dago.

Aurrez aipaturiko arrazoiak medio Itsasondoko Udalak Agenda 21eko Ekintza Planaren berrikuspenari ekin dio, lehenengo hurratsak 2012ko maiatzaren hasieran bideratzen hasi garelarik.

Berrikuspen prozesu honi Itsasondo Ekinez Egina 2012 izena eman diogu, proiektua erraz identifikatu eta ulertu ahal izatea helburu hartuta.

2. PROZESUAREN FASEAK ETA EMAITZAK

2.1. LAN PROGRAMA

Itsasondoko Agenda 21 prozesuaren berrikuspenerako faseak honako hauek izan dira:

- **Prestaketa:** prozesua martxan jartzeko egin beharreko lanak zehaztuko ditugu. Atal honetan besteak, beste honako lan hauek burutuko dira:

- **Diagnostikoa**: herriko argazki ahalik eta osatuena lortzera begira, *EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berriksuteko Gidaliburu metodologikoa*n zehazten diren irizpideak jarraituta burutu dena.

- **Herritarrekin bilera**k: 3 lan-taldetan banatuta (Ingurumena eta Hirigintza; Herri Bizitza eta Ongizatea) herriaren inguruko hausnarketa burutuko da, herriko hutsuneak aztertuz eta datozen urteetara begira garatu daitezkeen ekintzak proposatuz eta lehentasunak markatuz.

- **Udal barruko lanak:** herritarrekin eginiko bileretan jasotako ekarpenen bideragarritasuna aztertuko da udal teknikariekin. Herritarren ekarpenak landu eta ordenatuko dira.

- **Parte-hartze metodologia zehaztea eta balorazioa:** Itsasondoko Udalean, bere funtzionamendurako, herritarren parte-hartzea nolakoa izan behar den landuko da fase honetan.

- **Bukaera:** prozesuaren emaitzak azaldu, prozesua baloratu eta egindako lana ospatuko dugu fase honetan.

2.2. SORTUTAKO DOKUMENTUEN ZERRENDA

Goian zehaztutako urratsak jarraituta, honako bi txosten hauek sortu dira:

1. Itsasondoko Iraunkortasun Diagnostikoa
2. Itsasondoko Agenda 21eko II.Ekintza- Plana

3. SINTESI DIAGNOSTIKOA

Jarraian aurkezten da Itsasondoko Sintesi Diagnostikoa. Lau arlo nagusitan banatzen da. Arlo bakoitzean honako gai hauek lantzen dira:

LURRALDE ARLOKO GAIAK

- Lurralde Antolamendua
- Mugikortasuna
- Biodibertsitatea eta Paisaia

BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

- Ura
- Hondakinak
- Energia
- Ingurumen Kalitatea (atmosfera, akustika eta lurzorua)
- Arriskuaren eta jarduera ekonomikoen kudeaketa
- Udal administrazioaren erosketa publikoa eta ingurumen kudeaketa
- Klima aldaketa eta inpaktu globala

SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA

- Komunikazioa, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea
- Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna

GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

- Biztanleria
- Garapen ekonomikoa eta lan merkatua
- Gizarte Ongizatea
- Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola
- Etxebizitza

Diagnostikoko fitxen egitura

GAI EREMUA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

Aztertutako eremu tematikoarekin lotura duten Aalborgeko konpromisoak.

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA

Diagnostikaoren aurkezpen sintetikoa, gai eremu bakoitzerako identifikatu diren azpi-eremu adierazgarrienen arabera sailkatuta.

Diagnostikoa honako hauetan oinarritzen da:

- Eskuragarri dagoen informazio teknikoa
- Teknikari eta politikariei egindako elkarrizketak
- Parte-hartze bileretan aterakao ekarpenak
-

Azpi eremu bakoitzerako, diagnostikoaren balorazioa irudikatzen da, semaforo koloreak dituen aurpegitxoen bidez.

AURREKO EKINTZA PLANA
Lotura duten lerro estrategikoak eta jarduera programak zehazten dira.
LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak: Gai eremuarekin lotura duten udal mailako arau, plan, ordenantzak, etab. jasotzen dira. Gipuzkoakoak, EAEkoak, Europar mailakoak: Udalaz gaindiko arau eta planak
HURRENGO EKINTZA PLANEAN ZEHAZTEKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK
Egindako diagnostikoan eta azpi-eremuen balorazioetan oinarrituta, lehentasunezko jarduera eremuak identifikatu dira. Udal eskumenekoak eta udalaz gaindikoak bereiziz.

3.1. LURRALDE GAIAK

LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

5. Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Lurralde eremua	• Itsasondo, Goierriko Eremu Funtzionalaren baitan kokatuta dagoen udalerria da. Oria ibaiaren goiko ibilguan kokatutako eremu hau, malkartsua da, haranetan ematen delarik giza konzentrazio handiena. • Ordiziatik oso gertu kokatzen da (Goierriko Eremu Funtzionaleko Udalerri burua), lurralde mailan garrantzia handia duten bide azpiegiturak udalerria zeharkatzen duelarik (N-1 errepidea). 	☺
Lurzoruaren egitura organikoa eta erabilerak	• 8,90 km^2tako azalera du eta zatirik handiena urbanizaezina da. Gaur egun, artifizializatutako lurzorua %2,04koa da eta hurrenez hurren, sistema orokorrak, aktibitate ekonomikoak eta hiri lurzorua daude eremu horretan (Udalplan-etik ateratako datua). • Urbanizatu gabeko lurzoruan, batez ere berezko basoak (392 Ha) eta landatutako basoak (305 Ha) eta larreak (120 Ha) daude (2011ko Baso Inbentarioko datuak). • 34 abeltzantza ustiategi eta 19 nekazal ustiategi daude (INEko 2009ko nekazal zentsua). • Landa eremua orohar ondo zaindua dago eta erabilerak gora behera, ingurumena errespetatzen da.	☺

Hiri egitura eta sarea	• Herriguneak nukleo egitura du, guztira 325 etxebizitza daude herrian. • Itsasondon, beraz, 0,36 etxebizitza /Ha-ko daude, **Gipuzkoako batazbestekoa baino dentsitate askoz ere baxuagoa** delarik (57,58 etxebizitza/Ha). • Hiri Garapen berrienak herrigunean daude kokatuta Beiti Kalean eta Toki-Goxo inguruan. • Herrian hiru industria eremu nagusi daude: bat herrigunean kokatua eta HAPOan kokalekutik mugitzea aurreikusten dena, Ibaiondo izenekoa (ibaiaren eta trenbidearen artean kokatua) eta Jasori dagokiona hirugarrena. • 2011ko datuen arabera, Itsasondoko etxebizitzen %35,08 dira 50 urte baino gehiago dituztenak. 2011ean %16,31 ziren etxebizitza hutsak, Gipuzkoako batazbestekoa baino gehiago (%12,17).	
Herriko eta inguruko berdeguneak	• Udalerrian landa eremuak garrantzia handia denez, berdegunez inguratuta aurkitzen da (batez ere iparraldea). Orohar, hiri lurzoruaren **%21,49a parke, lorategi eta berdegunez osatuta dago** (Udalmap 2009).	
Herriko paisaia eta gune degradatuak	• Itsasondok, nahiz eta landa eremu zaindua izan, birgaitu eta txukundu beharreko eremuak ditu herrigunean. Hau honela 2010ean *Itsasondoko gune degradatuen inbentarioa* izeneko azterketa egin zen	
Ondare arkitektoniko eta kulturala	• Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren arabera eta Eusko Jaurlaritzako Ondare Kulturaleko Zentruari eginiko kontsulta aipatuz, Itsasondon ez dago Interes Kulturaleko Ondarerik, ezta Monumentu Katalogaturik ere. • Gipuzkoako Presuntzio arkeologikoko eremuak zehazten dituen 1997ko Irailaren 17ko Ebazpenaren arabera, Itsasondon Presuntzio arkeologikoko 7 gune daude: Urkigoiena baserria, urkigoiena-Azpi Baserria, Isasaga Baserria, San Gregorioko Ermita, Nuestra Señora de la Asunción Eliza, Lukasain Goiko Baserria eta Etxeberri Baserria.	
Lurralde Plangintza eta Plangintza sektoriala	• 1997an onartutako **Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG/DOT),** gainerako antolamendu tresnak formulatzeko erreferentzia esparru orokorra dira. • **Goierriko Lurraldeko Zatikako Plana** (LZP/PTP), 2009an onartutakoa. Bertan Itsasondotik ere igarotzen den N-1 Zaharra, zumardi moduan transformatzea aurreikusten du: zuhaitz gune, espaloi zabal eta bidegorriekin. Era berean, Itsasondo etxebizitza publikoak eraikitzeko intereseko eremu moduan izendatzen da. Aktibitate ekonomikoei dagokionez, hazkuntza ertaineko eremutzat hartzen da, besteak beste. • 1999an onartutako **EAEko Ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak** (LAP/PTS), Itsasondoko gainazaleko urak babesteko zonak mugarritzen ditu eta zonetan banatu. • **EAEko trenbide arearen Lurraldearen arlokako planak** (2001), morrontza eremuak eta trenbide sarearen eragina duten eremuak eta hauen erabilerak zehazten ditu. Morrontza eremuetan, adibidez, 20 mtako zabalera batean ezin eraiki daiteke.	

	• **EAEko Hezeguneen Lurralde Arloko Planaren** (2004) arabera, Itsasondon ez da babestu beharreko eremurik identifikatzen. • **EAEko Ekonomia Jardueretarako Lurzoru Publikoa eta Merkataritza Ekipamenduak sortzeko Lurraldearen Arloko Planak** (2004), Itsasondo, aktibitate ekonomikoak gauzatzeko lehentasunezko eremuan kokatzen du. • **EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak** (2010) azpikategoria ezberdinak eta hauen erabileren erregulazioa zehazten du. • **Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurraldearen Arlokako Planak** ez du Itsasondorako inongo azpiegiturarik proposatzen. • Lurralde antolamendurako beste tresna batzuk ez daude indarrean, tramitatzen ari direlako: Ondare Kulturalaren LAP, Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPa (behin behinean onartua), etab.	
Hirigintza plangintza	• Itsasondon indarrean daugoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, 2010EKO Uztailaren 29an Onartu zen behin-betiko (2010eko abuztuaren 31ko Aldizkari ofizialean argitaratua). • HAPO honetan 138 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da eta industria lurzorua indarrean dauden arau subsidiarioen parekoa da.	
Plangintza eta eraikuntzan iraunkortasun irizpideak integratzea	• HAPOan, Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena egin zen (Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental), legeak ezartzen duena betez. Plangintzak ingurumen helburuak betetzen dituela esan genezake. • HAPOan **ez da ezarri** garapen berrietan eta lehengo eraikinak birgaitzerakoan energia kontsumoaren inguruko helbururik. • 2010ean, **Itsasondon zegoen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria** zuen etxebizitzarik (Udalmap).	

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
7.2. Arau Subsidiarioetarako irizpideak ezartzeko programa 8.1. Ingurune Naturala eta Landa Eremua zaintzeko eta bultzateko programa

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Itsasondoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (2010eko Uztailak 29) Itsasondoko gune degradatuen inbentarioa (2010)
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (1997) Goierriko Lurraldearen Zatikako Plana (2009) Gipuzkoako Errepideen LAP (2006) EAEko Nekazaritza, Basoak eta Ingurune Naturala Antolatzeko LAP (2004) EAEko Trenbide Sarearen LPA (2001) EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPA (1998)

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
HAPOan zehazten diren aurreikuspenak garatzea, Ingurumeneko Iraunkortasun Txostenaren zehaztapenen arabera. Degradatutako eremuak txukundu, azterketan zehazten diren ekimenak Aurrera eramanez. Herriko paisaia mantendu eta hobetzea. Herriko parke eta berdeguneak mantentzea. Energia eraginkortasunerako neurriak bultzatzea etxebizitza, ekipamendu eta gune publikoetan. Ondare arkitektonikoaren eta landa eremuarekin lotutako eraikinen birgaitzea sustatzea.

MUGIKORTASUNA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

6. Mugikortasuna hobetzea eta zirkulazioa murriztea

10. Tokian tokikotik mundu globalera

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Eguneroko mugikortasun beharrak	• Lurraldeko tamaina bereko udalerrien antzera, Itsasondoko %78,95 udalerritik kanpo egiten du lan (2001). • DBH eta aurreragoko ikasketak eskeintzen dituen ikastetxerik ez dagoenez, 16 urtetik gorako ikasleen %100ak ikasten du Itsasondotik kanpo.	😐
Mugikortasunaren kudeaketa eta hirigintza	• Itsasondon, ez dago Udalerriko Mugikortasun Iraunkorreko Planik, baina 2010ean eskualde mailako azterketa burutu zen **Goierriko Mugikortasun Iraunkorreko Azterketa.** Bertan, eskualdeko garraio publikoari dagokionez hobekuntzak proposatzen dira. • Azterketan Itsasondori dagokionez, egun dauden 4 zerbitzuetatik, 12ra pasako lirateke proposamen honetan. Legorreta eta Zumarragako Hospitalea lotzen dituen autobus zerbitzua litzateke Itsasondotik pasatzen dena. • Gipuzkoako Foru Aldundia, proposamen hau (eskualdeko gainerakoekin batera) aztertzen ari da.	🙂
Garraio Publikoa	• Herriraino iristen den garraio publikoa tren eta autobus zerbitzuak osatzen du. Egunero 8 autobus daude Itsasondotik igarotzen direnak (Legorreta-Zumarragako hospitalea linean, 4 joan/4itzuli). Zerbitzu hauen erabiltzaileen inguruko daturik ez dago. • Itsasondoko Renfeko tren geltokian, egunero, 32 tren daude Donostiara joateko eta 35 itzultzeko. 40 minutu irauten ditu bidaiak (Irun-Brinkola linea).	😐
Oinezkoen eta bizikleten sareak	• Udalerriko biztanleria gehiena, herrigunean bizi da, bertan oinezkoen ibilbideen kalitatea ona delarik. • Itsasondon Irisgarritasun Plana dago, 2006ko Urrian egina. • Itsasondo eta Legorreta lotzen dituen bidegorria iristen da herri sarreraraino. Bidegorri hau Beasain eta Donostia lotuko dituen bidegorri linea orokorraren tramo bat da. Itsasondoko herrigunetik igaro eta Ordiziara doan bidegorria, Gipuzkoako Foru Aldundiak laster lizitaziora ateratzea aurreikusten da.	😐

Errepide sarea	• Udalerriko azaleraren %1,28a errepideek osatzen dute (11,41 Ha). • Udalerritik N-1 eta GI-2131 errepidea igarotzen dira. • N-1a herrigunearen hegoaldetikigarotzen da. Itsasondora joateko 422.irteera hartu behar delarik. • Herriko errepideetan ez da aurreikusten inongo proiekturik. Orohar errepideen egoera ona da.	
Lurralde loturak eta Irisgarritasuna	• Oinarrizko errepide sarearen bidez, udalerriaren eta lurraldearen arteko konexioa ona da. Trenbide sareari dagokionez, Renfeko geltokiaren bidez) konexioa ona da. • Landa eremuko etxeetako eta nekazaritza jardueretako bide gehienak asfaltatuta daude, eta irisgarritasuna egokia da. • Itsasondoko Udalak Irisgarritasun Plana burutu zuen 2006an.	
Aparkalekuak	• Herritarrek beraien ibilgailuak uzteko lur gaineko aparkaleku nahikoa dute	
Motorizazioa eta ibilgailuak	• Herriko auto kopurua igo egin da azken urteotan. 2005en 296 auto zeuden Itsasondon eta 2010ean 315 (Eustat). • Itsasondoko motorizazio tasa (0,71 ibilgailu/biztanleko), Gipuzkoako (0,62 ibilgailu/biztanleko) eta EAEko motorizazio tasa (0,59 ibilgailu/biztanleko) baina **handiagoa da.** (UDALMAP).  Iturria: Bertan egindakoa, Eustateko datuetan oinarrituta	
Istripuak	• Itsasondoo istripu tasa 1.000 biztanleko 32,84koa izan zen 2012an. Itsasondoko istripu tasa Gipuzkoakoa (9,80) eta EAEkoa (7,65) baino altuagoa da. • 2012anItsasondon **ez zen egon ibilgailuek harrapatutako oinezkorik**. Gipuzkoa eta EAEn, aldiz, 10.000 biztanleko 4,31 eta 4,43 oinezko harrapatu zituzten ibilgailuek. (UDALMApeko datuak).	

Salgaiak	• Udalerria zeharkatzen duen N-1 errepidean salgaien zirkulazioa nabarmena da.	😐

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
7.3. Mugikortasun Iraunkorrago bat bultzatzeko programa.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Eskualdekoak
Goierriko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (2010) Itsasondoko Udaleko Irisgarritasun Plana (2006).
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPA (aurrerapena, 2008) EAEko Trenbide Sarearen LPA (2001) Gipuzkoako Errepideen LPA (2006) EAEko Garraio Iraunkorraren Plan Zuzendaria (2002) Euskal Herriko Errepideen 2. Plan Orokorra (1999)

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Autoa konpartitzeko sentsibilizazio kanpainak burutzea eta bitartekoak jartzea.
Udalaz gaindiko eskumena
Herriguneko trafiko arazoak (abiadurarekin lotuta batez ere), konpontzeko irtenbideak aztertzea. Autobus garraioaren inguruko azterketan planteatzen ziren irtenbideak aurrera eramatea.

BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

3. Natur ondasun komunak

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Natura eta Paisaia balioak	• Itsasondon 4 habitat nagusi aurkitzen dira: baso landaketak, pagadi azidofiloa, harizti azidofiloa eta baso misto atlantiarra eta zelai atlantiar eta baratzeak. • **Muinoetan**, batez ere larre, landaketa atlantiar eta arizti azidofiloek okupatzen dute azalerarik handiena. Koniferoen baso eta hariztiak ere aurkitzen dira bertan. *Itsasondoko udalerriko ingurune fisikoaren azterketa eta natura edota paisaia ikuspegitik garrantzia berezi duten guneen inbentarioa* azterketaren arabera, herrigunearen ipar eta mendebaldean, koniferen landaketa ugari aurkitzen dira. Hala ere badaude oraindik ere mantentzen diren harizti eta pagadiak. • **Murumendi** inguruan, ipar-iparmendebaldean pagadi interesgarri bat aurkitzen da. Gailurrean, gainera, arkaizti akalkareoetanohikoak diren landare belarkarak aurkitzen dira, *Saxifraga losae* nabarmentzen delarik. Malda handiko gunetan baso mistoko partzelak kokatzen dira. • **Erreka inguruetan,** zelai eta landaketa atlantiarreko guneak aurkitzen dira, haranean. • Orohar, eta nahiz eta aipatu ditugun eremu hauek izan, herriaren azalera handiena baso landaketek hartzen dute. Baso landaketa hauek, espezie eta adin bereko zuhaitzek osatzen dituzte. Itsasondon batez ere *Pinus radiata* pinua da presentzia hanidena duen landaketa. Altuera handiagoetan *Larix kaempferi* (Japongo alertzea) espeziea da gehien agertzen dena. • **Faunari dagokionez,** Itsasondon dauden lau habitatetan bizi diren animalia komunitateak aurki ditzakegu. Hauetatik EAEko Katalogoan, **Interes bereziko** espezie moduan honako hauek nabarmen ditzakegu: *Rana iberica* igela,	😐

	Dendrocopus minor hegaztia, *Accipiter nissus* gabiraia eta *Caprimulgus europaeus* hegaztia. **Zaurgarri** bezela katalogatutako *Glis glis* muxarra, eta *Eliomys qurcinus* sagua.	
Sistema naturalak eta paisaia	• Orohar Itsasondoko sistema naturalak naturalizatzen ari direla esan genezake, nekazaritza jarduerak desagertzen joan direlako. Garai batean, landa eremuko paisaia tamaina txikiko eta ehundura eta kolore ugariko unitateek osatzen zuten, baina azken hamarkadetan paisaia sinplifikatuz joan da (erabilerak murrizten joan direlako). • Paisaiari dagokionez 3 unitate aurkitzen ditugu: aranaren behekaldea, baso eremua eta herrigune eta industriagunea.	☺
Naturgune babestuak	• Itsasondoko mugen barruan ingurumen interesa duten bi figura aurkitzen ditugu: **Murumendiko Interes Naturalistikoko Gunea** eta **Izarraitz-Aralarreko Korridore Ekologikoa.** • **Murumendiko Interes Naturalistikoko Gunea**ri dagokionez, Murumendiko gailur inguruan EAEn gutxi aurkitzen den moduko habitat aniztasuna aurkitzen da. Honako hauek dira aurkitzen ditugun habitatak: Ilex eta Taxus azpibasodun Pagadi Azidofiloa, Txilardi lehor europearra, zelai lehor seminaturalak eta sastrakadiak eta azkena, landaredi kasmofitikodun arroka maldak. • **Izarraitz-Aralar-eko korridorea,** PTS Agroforestalean aurkitzen da eta Murumendi Izarraitz eta Aralar naturguneak lotzen dituen korridorearen parte da. Korridore hauek naturgune babestuen artean elkartruke genetikoa eman dadin, komunikatuta egoteko, beharrezkoak dira.	☺
Ingurune naturalaren kudeaketa	• Murumendiko Interes Naturalistikoko Gunea, EAEko LAGean izendatzen da eta Izarraitz-Aralar korridorea PTS Agrofrorestalean. • Itsasondon Murumendiko zenbait gune berreskuratzeko helburuarekin, hainbat terreno eskuratu eta bertan Aranzadirekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean kontserbazio programak ari dira aurrera eramaten. Helburu honen barruan kokatzen da Aranzadik eginiko *Itsasondoko udalerriko ingurune fisikoaren azterketa eta natura edota paisaia ikuspegitik garrantzia berezi duten guneen inbentario.*	☺

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak

8.1. Ingurune Naturala eta Landa eremua zaintzeko eta bultzatzeko programa.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Itsasondo Udalerriko Ingurune Fisikoaren azterketa eta natura edota paisaia ikuspegitik garrantzi berezia duten guneen inbentarioa. Aranzadi (2009). Itsasondoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (2010)
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
EAEko LAG (1997) Goierriko LZP (2009) EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAP (1998)

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Aranzadiko azterketan aipatzen diren interesko eremuaen kontserbazio eta berreskurapenerako ekimenak burutzea.. Lehen sektoreko jardueren bideragarritasuna bermatzeko neurriak hartzea, betiere bioaniztasuna eta paisaia mantenduz. Ingurune naturalean aisialdia, kirola eta turismoa sustatzea, ingurunea zainduz.

3.2. BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

URA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

3. Natur ondasun komunak

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Hornidura eta banaketa sarea	• Itsasondo **Gipuzkoako Ur Kontsortzioko** kide da sortu zenetik, 1989 urtetik, eta goi kudeaketaz arduratzen da kontsortzioa (ura bildu eta banatzea). Udalak, tratatutako ura banatzen du (behe hornidura), sarea mantendu eta kontsumitzaileei kobratzen die. • Itsasondo **Arriaran**go (Beasain) urtegiak hornitzen du, Goierriko hornidura sistemaren baitan dago. Gaur egun baserri batzuk bakarrik hartzen dute ura dauzkaten deposito propioetatik. • **Ur- eskariaren** (alta emandako horniketa) azken lau urtetako bilakaera aztertuz, ikusten dugu, 2009tik 2012ra %37,6an jeitsi dela eskaera: 61.910 m3tik 38.635m3 m3ra pasa baita: ITSASONDOKO UR- ESKARIAREN BILAKAERA (2009-2012) (m3tan)  *Iturria: Itsasondoko Udala* • Galeretan, azken lau urteetan izugarrizko beherakada eman da Itsasondon, 2009an kontabilizatu gabeko ura %43,32 izatetik 2012an %22 izatera pasa baita. Azken urteetan Itsasondoko Udalean lan handia eginda kontagailu guztiak aldatzen. Herri guztian kontagailu guztiak aldatu dira, elektronikoak jarriz.	
	KONTSUMOKO URAREN OSASUN SAILKAPENA	



(Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusia. EAEko Kontsumorako Uraren informazio Sistema (Ekuis): 3, Ona; 2, Onargarria; 1, Eskasa; 0, Zehaztu Gabea)

- Edateko ura hornitzeko sareen eta azpiegituren estaldura maila oso ona da, ia udalerri osoa hartzen baitu.
- Gaur egun ez dago euri ura aprobetxatzeko sistemak ezartzeko aurreikuspenik.

.

Eskaria eta kontsumoa

- Banatzen eta kontsumitzen den uraren sektorekako erregistro sistematikoa, industrial eta ez industria l(domestiko) moduan bereizten dena da.
- Etxeetako ur konstumoaren azken bost urteetako bilakera aztertuz, beherakada eman dela ikusten dugu: 115,08 litro/bizt/egun 2009an. 2012an %97,95 litro/bizt/egun izatera pasa da. Udalsarea 21eko Tokiko Ekintza Planen ebaluazio eta jarraipenerako 5. Programan parte hartu zuten udalerrien batezbesteko baino altuagoa da (136l/bitz/egun).
- Sektorekako ur kontsumoari dagokionez, etxeetako kontsumoa, industriala baina handiagoa da:

UR-KONTSUMOA SEKTOREKA (M3)
2012



Iturria: Itsasondoko Udala

.

- Momentuz, ez da ur kontsumoa murrizteko neurririk hartu.

Saneamendua eta Arazketa	• Saneamenduko behe sarea eta euri ura bereizteko sarea Udalak kudeatzen ditu. Saneamendu separatiboko obrak 2001-2002an amaitu ziren. • Egun, San Juan auzoa eta ibaiondo industriagunea eta baserriak kenduta, herri guztiaren hondakin urak Legorretako Hondakin Uren Araztegiarekin lotuta daude, bertan arazten direlarik. Tratamendu biologiko zein kimikoak erabiltzen dira Araztegi honetan, hondakin ur hauek garbitu eta errekara isurtzeko.	
Uraren zikloaren araudia eta kudeaketa	• Edateko uraren tarifazioari dagokionez, Itsasondoko ordenantza fiskaletan ez da uraren aurrezpena bultzatzeko ekimenik deskribartzen (2012).	
Sentsibilizazioa	• Itsasondon ez da Urarekin lotutako sentsibilizazio ekimenik burutu azken urteotan. .	
Uraren kalitatea	• Itsasondon ez dago Uraren Euskal Agentziaren laginketa estaziorik.	

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
9.1. Uraren zentzuzko kontsumoa bultzatu eta kudeaketa hobetu.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Udaleko Ur zerbitzuaren araudia Kolektoreko isurketen araudia Ordenantza fiskalak
Gipuzkoakoak, EAEkoak eta Europar Batasunekoak
Ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legea. Uraren Esparru Zuzentaraua (2000/60/EE)

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Zenbatu gabeko ur kontsumoa eta galerak murriztea. Beheko sarearen bidez banatzen den edateko uraren bolumena sistematikoki kontrolatzea. Udal ekipamenduetako ur kontsumoa kontrolatzea. Udalerri guztia saneamendu sarearekin lotzea. Errekastoak garbitu eta mantentzea. Edateko uraren tarifa egokitzea, uraren aurrezpena bultzatzeko.

HONDAKINAK

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

4. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

10. Tokian tokikotik mundu globalera

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Hiri hondakinen sorrera	• OHARRA: Hondakinen datuak Sasieta Mankomunitatea osatzen duten 22 udalerrietan sortzen diren datu orokorretatik, biztanleko ateratako estimazioak dira. • Azken urteotan, Hondakinen sorreran beheranzko joera bat nabari da: 2010ean 1,3 kg/bizt/egun sortzen baziren, 2011an 1,04 kg/bizt/egun sortu ziren eta 2012an 1,04 kg/bizt/egun (Iturria: Sasieta Mankomunitatea). Udalsarea 21eko batazbestekoa, berriz, handiagoa da. 1,3 kg/bizt/egun, 2009an. (Iturria: EAEko 2010/2011 Iraunkortasun Txostena). • 2012rako EAEk ezarritako helburua 1,44 kg/bizt/egun zela kontutan izanda, Sasietako Mankomunitateko etxeetan hondakin gutxiago sortzen dira, eta beraz, azken urteetako emaitza onei eusteko egungo joera egonkortzea komeniko litzateke. HIRI HONDAKINEN SORRERA INDIZEAREN BILAKAERA  *Iturria: Sasieta Mankomunitatea* .	
Gaikako bilketa	• Hondakinen gaikako bilketak ere gora egin du nabarmen. Itsasondon azken urteotan. Hondakinen gaikako bilketako sistema ezberdinak jarri dira martxan: 2011ko ekainarte edukiontzi bidezko sistema zegoen (edukiontzi marroiarekin). 2011ko uztailetik 2013ko martxorarte Sistema Mistoa deitu izan zaiona egon da martxan (errefusa atez-ate biltzen zen eta gainerakoa edukiontzi bidez. Azkenik, 2013ko martxotik martxan da atez-ateko sistema (beira ezik,	

gainerakoa atez.-ate biltzen da).

- 2011ko ekainarte, biltzen zen Hondakinen %39a bildu zen gaika. 2012ko ekainean (sistema mistoa ezarri eta urtebetera), %90a zen gaika biltzen zena eta %10a zabortegira botatzen zena. 2013ko urrian portzentaia honi eusten zaio eta %88a da gaika biltzen dena. Gaika biltzen diren hondakinen ehunekoa, Udalsarea 21eko batez bestekoa baino handiagoa da (2009an, %28. Iturria: EAEko 2010/2011ko Iraunkortasun Txostena) eta EAEko II. Esparru programan 2010erako hartutako konpromisoa (2010erako %35 birziklatzea) betetzen da. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean, 2016rako ezarritako helburua (%60 birziklatzea) ere erraz betetzen da. Bilketa sistema aldatzeak, birziklapena izugarri handitzea ekarri du.

HIRI HONDAKINEN GAIKAKO BILKETAREN BILAKAERA



Iturria: Sasieta Mankomunitatea

- Itsasondon Hondakin Organikoaren bilketa 2010ean hasi zen, eta giltzaz itxitako edukiontzien bidez egiten zen hasieran. 2013ko martxotik aurrera, atez-ate biltzen dira hondakin organikoak. Era berean, autokonpostaia eta auzokonpostaia eremuak ere martxan jartzen ari dira, hondakin organikoen zati bat bilketa zirkuitutik kanpo geratuz, horrela.

Hiri hondakinen kudeaketa eta tratamentua

- Itsasondoko hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzuak Sasietako Mankomunitatearen esku daude. Mankomunitateak 22 herritako hondakinak kudeatzen ditu, honako zerbitzu hauek eskainiz: etxeko hondakinen gaikako bilketa eta gainerako hondakinen bilketa; tamaina handiko trasteen bilketa, erakundetako/industrigunetako hondakinen bilketa eta eskualdeko garbiguneen kudeaketa. Zerbitzu hauetarako espezializatutako enpresak azpikontratatzen dira.
- Mankomunitateak gaikako bilketaren baitan, honako hondakin hauek bereizten ditu: beira, papera eta kartoia, ontzi arinak, hondakin organikoak, pilak, arropak, sukaldeko olioa, hondakin elektriko eta elektronikoak, egurra eta etxeko hondakin arriskutsuak.
- Autokonposta eta auzokonposta ere bultzatzen da Mankomunitatetik, horretarako baliabide material zein formazioa eskainiz.
- Itsasondon, beira edukiontzi bidez biltzen bada ere, gainerako hondakin frakzioak atez-ate biltzen dira.
- Gaur egun Itsasondotik hurbilen dagoen garbigunea

	Ordiziakoa da eta zerbitzua doakoa da. • Birziklatu ezin diren hondakinak Sasietako zabortegira (Beasainera) eramaten dira. • Udalean ez dago Hondakinen Ordenantzarik. • Ordenantza fiskaletan ez dago hondakinen sorkuntza murrizteko sustagaririk.	
Sentsibilizazioa	• Sasietako Mankomunitateak bideratzen ditu Hondakinen inguruko sentsibilizazio kanpainak (zer/non gidaliburua).	☺
Industriako hondakinak	• Industriako Hondakinei dagokien azken datua 2004koa da: 13,3 t hondakin arriskutsu aitortu ziren eta hauetatik %44,6 balorizatu ziren. EAEko Ingurumeneko II.Esparru programako helburuetako bat hondakinen %65 balorizatzea zen, beraz, Itsasondon helburu hori ez da bete. HONDAKIN ARRISKUTSUEN KUDEAKETA 2004  *Iturria: Ihobe*	☹
Nekazaritzako hondakinak	• Nekazaritzako hondakinen kudeaketari dagokionez, ustiategi bakoitza arduratzen da sortzen dituen ontzi eta hondakin fitosanitarioen kudeaketaz. Gilbek (Gipuzkoako Lorezale eta Barazkigileen Elkarteak), hondakin hauen kudeaketa burutzeko aholkularitza ematen du.	☺
Eraikuntzako hondakinak	• Obra txikiak egiterakoan, kalean edukiontzia jartzeko baimena eskatu behar izaten da.	☺

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
10.1. Hiri hondakinen murrizketa, gaikako bilketa eta birziklatzeko programa. 10.2. Hondakinen kudeaketa hobetzeko programa.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Hiri hondakinen bilketa arautzen duen Udal ordenantza. Ordenantza fiskalak.
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
3/1998 Legea, EAEko ingurumena babesteko lege orokorra. III.idazpurua: Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua. IV atalburua: Hondakinak. Gipuzkoako hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Hiri hondakinen sorkuntza murrizteko neurriak sustatzea. Auto eta auzokonpostaia ekimenak bultzatzea..
Udalaz gaindiko eskumena
Gipuzkoan hondakin sorrera berrira egokitutako azpiegiturak martxan jartzea.

ENERGIA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

3. Natur Ondasun Komunak

4. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

10. Tokian tokikotik mundu globalera

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Egitura energetikoa	• Industriala ez den energia kontsumoaren (etxeetakoa+zerbitzuetako) datuak bakarrik lortu ahal izan dira, etxetako energia kontsumoa bakarrik ez da eskuratu. INDUSTRIALA EZ DEN ENERGIAREN KONTSUMOAREN BILAKAERA (tpb/bizt)  *Iturria: bertan egina Udalmapeko datuak kontutan hartuz* . • Industriala ez den energia kontsumoa eta industria sektoreari dagokion energia konstumoa alderatuz gero, 2012an oso parekatua izan da kontsumoa:	



Iturria: Bertan egina, Udalmapeko datuetatik abiatuta.

Energia berriztagarrien ekoizpena	• Itsasondoko energia berriztagarrien ekoizpenari dagokionez, eta Udalmapeko datuen arbera 2011an Itsasondon 8.624,31 kWh/urte ekoitzi ziren, hau da, 12,93 kWh/bizt/urte. (UDALMAP eta EEEko datuetan oinarritutako kalkulua). (Udalsarea21eko batazbestekoa baino askoz ere bajuagoa, 174 kWh/bizt; 2009). • Dauzkagun datuen arabera, Itsasondon sortzen den energia berriztagarri guztia energia fotovoltaikoari dagokio (Udalmp 2011) • Ez dago ez instalazio eoliko ez hidraulikorik ere (Iturria: Udalmap).	
Kontsumoa eta kudeaketa tokiko administrazioan	• Itsasondoko udalean ez dago energiarekin zerikusia duten egitasmo guztiak antolatzen eta kudeatzen dituen energia udal arduradunik. • Ondorioz, Udalean ez da energiaren kudeaketarekin lotutako plangintza orokor eta zentralizaturik. • Udaletxeko eraikineko energia kontsumoa ez da monitorizatzen. Hala ere, pelet bidezko berogailu sistema jarri da Udaletxeko eraikin berrian.	
Udal ekipamenduetako kontsumoa	• Udal eraikin berrian argiteria publikoaren kontsumoa kudeatzeko sistemarik ez da jarri. • Itsasondoko Udalak, momentuz ez du udal argiteriaren auditoriarik egin.	
Argiteria publikoaren kontsumoa	• Udal argiztapenean ematen den energia kontsumoari dagokionez, 2006ean 211,3 kWh/biztanle/urte-koa izan zen (Iturria: Udalsarea 21eko adierazle programa).	

Udaleko ibilgailuen kontsumoa	• Udalak honako ibilgailu hauek ditu: Land Rover-a (gasoila erabiltzen du), kamioneta elektrikoa eta barredora (honen erregaia ere gasoila da).	
Sentsibilizazioa	• Energiaren inguruko udalerri mailako sentsibilizazio kanpainarik ez da egin.	
Eraikuntza	• Hiri Antolamenduko Plan Orokor berrian, Eraikuntza Kode Teknikoan (EKT) eraikin berrietarako ezarri diren zehaztapenak bildu dira bertan (eraginkortasun energetikoari eta energia berriztagarrien erabilerari buruzkoak) • Zehaztapen hauek dagoeneko aplikatzen dira, EKTa indarrean sartu zenetik egin diren obretan. • Udalak ez du jarduera osagarririk aurreikusten.	

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
11.1. Energia berriztagarriak eta efizientzia sustatzeko programa.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
47/2007 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, eraikuntza berriko eraikinen energia eraginkortasuna ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena. Euskadi 2010 Energia Estrategia. Energia garapen iraunkorrerantz (EEE, 2005) Euskadi 2020 Energia Estrategia.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Energiaren kudeaketa zentralizatzea udalean. Kudeaketaren plangintza egitea, gauzatu beharreko ekimenak ikuspegi orokor batetik bideratuz. Energia berriztagarrien ekoizpena sustatzea. Argiteria publikoaren kontsumoa murrizteko plangintza konkretua egitea (auditoria+neurriak) Energiaren aurrezpena eta erabilera arduratsua sustatzea sektore guztietan.
Udalaz gaindiko eskumena
Energia berriztagarrien ekoizpena bultzatzea. Energia kontsumoa txikitzea. Mendekotasun energetikoa eta erregai fosilen erabilera murriztuko duen energia hornidura diseinatu eta ezartzea.

INGURUMENAREN KALITATEA, ATMOSFERA, AKUSTIKA ETA LURZORUA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

3. Natur ondasun komunak

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Atmosferara egindako igorpenak	• Airearen kalitatean eragina izan dezaketen igorpen foku nagusiak honako hauek dira: 1. Zirkulazioa: N-1: Madril_Irun errepide nazionala 2. Etxebizitzak eta zerbitzuak: Erregaien kontsumoak (berokuntza sistema, etxeko ur beroa eta sukaldea) eragindako igorpenak. 3. Industria: Udalerrian kokatutako enpresek. 4. Obrak: Azpiegitura handietako lanak (N-1 zein AHT). Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aurreikusita dauden eraikuntza eta urbanizazio lanak.	
Airearen kalitatea	• Eusko Jaurlaritzako Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sareko Kontrol estazio finko bakarra dago eskualdean, Beasainen. Eskualdeko airearen kalitatearen azterketarako estazio horretako datuak erabili dira. • Airearen kalitatea kontrolatzeko estazio honetan honako parametro hauek neurtzen dira: esekidura partikulak (PM10), konposatu organiko lurrunkorrak (KOL) eta kutsatzaile fisiko-kimikoak neurtzen dira. Bestalde, datu metereologikoak ere biltzen dira, airearen kalitatea ebaluatzeko beharrezkoak baitira. • 2012an Beasainen kokatutako estazioan egindako neurketetan, Iraunkortasun adierazlea (kalifikazio ona + kalifikazio onargarria izan duten egunen kopurua/Urteko egun guztiak) %99,2koa izan da (iturria: EJko Ingurumen eta Lurralde Politika Saila).	
Kalitate akustikoa	• Itsasondon ez da zehaztasunezko zarata maparik egin. Dena dela, egun udalerrian hiru zarata foko nagusi daude: N-1 errepidea (herrigunetik 110 metro ingurutara igarotzen dena), ADIFeko trenbide sarea (herrigunetik 95 metrora pasatzen da) eta herrigunea zeharkatzen duen GI.2131 errepidea. • ADIFeko trenbide sarearen eta udalerria zeharkatzen duten errepideentzat ez dago onartutako zarata maparik eginda. N-1ari dagokionez, 363-c/2008 Foru Aginduak, 2008ko azaroaren 3koak onartutako zarata mapa estrategikoak daude. Mapa hauen arabera, Itsasondon 55 dB(A) gainditzen dira, herritarren zati handi batek pairatzen duelarik zarata hau (%81,94ak egunez).	

<table>
<tr>
<td>Kalitate akustikoaren kudeaketa</td>
<td>

- Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko iraunkortasun txostenaren arabera, herrigunean garapen, erabilera eta jarduera jakin batzuk ezarri edo ez erabakitzerakoan, zarataren eragina ebaluatu behar da.
- Plan Orokorrean eremu akustikoak ezarri dira, eta horietan, erabileraren arabera, kalitate akustikoko helburu batzuk bete beharko dira.

</td>
<td>☺</td>
</tr>
<tr>
<td>Lurzoruaren kutsadura</td>
<td>

- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei dagokionez, gaur egun erabiltzen den inbentarioa 2004koa da. Itsasondon 12 partzela daude inbentariatuta, guztira 4,70 Ha direlarik.

<table>
<tr><td></td><td>Itsasondo</td><td>Gipuzkoa</td><td>EAE</td></tr>
<tr><td>Kutsatuta egon daitekeen azalera (ha)</td><td>4,70 Ha (%0,53)</td><td>3.348,75 Ha (%1,75)</td><td>7.898 ha (%1,11)</td></tr>
</table>

- Itsasondon kutsatuta egon daitezkeen lurzoruaren azalera **Gipuzkoakoa baino bajuagoa, baina EAEkoa baino altuagoa** da.
- Eremu gehienak aktiboan dirauten industriei dagozkie.

</td>
<td>😐</td>
</tr>
<tr>
<td>Lurzoruaren kalitatearen kudeaketa</td>
<td>

- Lurzoruaren kalitatearen kudeaketari dagokionez, 1/2005 Legean eta 9/2005 Errege Dekretuan zehazten dena egiten du Udalak, legeak hala eskatzen duen kasuetan Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena eskatuz.
- Lurzoruaren kutsaduraren prebentzioari dagokionez, jarduera lizentziak emateko garaian neurri zuzentzaileak ezartzen dira.

</td>
<td>☺</td>
</tr>
<tr>
<td>Prestakuntza, komunikazioa eta sentsibilizazioa</td>
<td>

- Airearen kalitatearen, zarataren edo lurzoru kutsatuen inguruko sentsibilizazio kanpainarik ez da egin, ez herritarrentzat ezta Udalean ere.

</td>
<td>☹</td>
</tr>
</table>

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
12.1. Zarataren eragina murrizteko programa. 12.2. Kutsadura atmosferikoa murrizteko programa 16.1. Herriko enpresen garapena bultzatzeko programa.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Hiri Antolamenduko Plan Orokorra , 2010.
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
3/1998 Legea, otsailaren 27koa, EAEko ingurumena babesteko lege orokorra 165/ Dekretua irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa. 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten duena. 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko legea. EAEko Lurzoru Kutsatuen 2007-2012ko Plana.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Zarata mapa eta ekintza plana egitea. Lurzoruaren kutsadurari aurrea hartzeko ekintzak bultzatzea
Udalaz gaindiko eskumena
Bide azpiegituretako zarata mapak egitea. Airearen kalitatea aztertzen jarraitzea.

ARRISKUAREN ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN KUDEAKETA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

3. Natur ondasun komunak

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Arrisku naturalen eta teknologikoen eragina	• Itsasondon arrisku hauek atzeman dira: • Arrisku naturalak: suteak (baso eremuetan), uholdeak eta luiziak (higadurak sor ditzakeen lurjausiak). Azken 15-20 urteotan ez da tamainako sute zein uholderik izan. 2013aren hasieran egindako euriteek baso pistetan luiziak eragin dituzte udalerrian. • Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriko Iraunkortasun txostenean jasotako informazioaren arabera, Itsasondon dagoeneko urbanizaturik dagoen herri iparraldean kokatutako industriagunean (Grúas Jaso parean), 100 urte eta 500 urteko epe baterako itzulerako uholde gune bat dago. Industria berak ibaian eragiten duen estutzeagatik. • Arrisku teknologikoak: industria jarduera arriskutsuek eta salgai arriskutsuen garraioak eragiten dute. Honela, eragin handiena duen arrisku teknologikoa errepide nahiz tren bidezko garraio azpiegiturekin lotutakoa da. • Industria jarduerekin lotutako arriskuari dagokionez, 1254/1999 Errege Dekretuan eta 945/2005 Errege Dekretuetan jasotako jarduerarik ez dago. Beraz, substantzia arriskutsuak dituzten guneetan istripu larriak izateko arriskua txikia da.	☺
Arrisku naturala eta teknologikoa kudeatzea	• Udalean ez dago udalerriko Larrialdi Planik. Egokia litzateke Udalerriko Larrialdi Plan bat osatzea, gerta daitezkeen larrialdi egoerei erantzun egoki bat emateko.	😐
Jarduera ekonomikoen ingurumen eraginaren arriskua	• Ingurumenean eragiteko arrisku gehien duten jarduera ekonomikoak industria jarduerak dira. Itsasondon, Jason, Ibaiondon eta herrigunean kokatzen dira industriak. Herrigunean kokatutako industriak HAPOan aurreiksuten denez, birkokatu egingo lirateke; egun okupatzen duten espazioa bizitegi eta ekipamenduetarako aprobetxatuz.	☺

	TALLERES JASO INDUSTRIAL S.L. CONSTRUCCIONES SEBASTIAN RAMOS S.L. ETXEAR MARGOAK S.L. PAPELERÍA DE IMPRESIÓN MANIPULADOS S.A. PINTURAS ORDIZIA S.L. RÓTULOS ZIURKILAN S.L. SAT JASO INDUSTRIAL S.L. TALLERES ALDARRI S.L. ANDOLA 07 S.L. CALDERERÍA Y MONTAJES URBIL S.L. GOFRAPAPEL S.L. MERKALDE S.L. *Iturria: Goierriko Industria Gida, Goieki 2010* • Zerrendan agertzen diren enpresa hauek kutsatzeko ahalmen bajukoak dira, eta kopurua ere bajua denez, ez dute aparteko arriskurik sortzen. • IPPC jarduerarik ez dago herrian.	
Jarduera ekonomikoen kudeaketa	• Jarduera baimenak Hirigintza sailaren bidez bideratzen dira, kontrataturiko udal zerbitzu teknikoek bideratzen dituztelarik (arkitektoak). • Udalerrian ez dago Ingurumen Kudeaketa Sistemarik duen enpresarik. • Sasietako Mankomunitateak hiri hondakinen parekoak diren hondakinak biltzeko erraztasunak ematen dizkie enpresei. • Goiekik, Eskualdeko garapen Agentziak, Zerbitzualdea Sailaren barruan, Ingurumenarekin lotutako gaiak lantzen ditu. Honela, enpresei aholkularitza zerbitzua eskaintzen zaie ingurumen gaietan (dirulaguntzak, ingurumen legedia betetzeko gida, etab.):	😐

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
16.1. Herriko enpresen garapena bultzatzeko programa.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, 2010.
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
3/1998 Legea, Otsailaren 27koa, EAEko ingurumena babesteko lege orokorra. 1/1996 Legea, apirilaren 3koa, larrialdien kudeaketari buruzkoa. 15/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, EAEko Babes Zibileko Plana (LABI) onartu zuena. EAEko Larrialdi sismikoetarako Plana (2007ko abenduaren 10eko EHAA). EAEko uholdeen Arriskurako Larrialdi Plan Berezia (2000ko otsailaren 19ko EHAA). EAEko Baso Suteetarako Larrialdi Plana (1998 martxoaren 23ko EHAA).

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Udalerriko Larrialdi Plana egitea eta bertan zehaztutako neurriak ezartzea. Udalerriko enpresek ingurumena kontutan har dezaten sustatzea.
Udalaz gaindiko eskumena
Ez da identifikatu.

EROSKETA PUBLIKOA ETA UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

2. Iraunkortasunaren aldeko udal kudeaketa

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Erosketa eta kontratazio publiko berdea	• Itsasondoko Udalean ez dago erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako ez irizpide ez estrategiarik.	☹
Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa	• Itsasondon ez dago ingurumen aldagai ezberdinetarako berezko ekintza-plan, estrategia edo programarik. • Itsasondoko Udalak 2008an Ekoscan ziurtagiria lortu zuen. • Hondakinen sailkapena egiten da Itsasondoko Udalean, frakzioa ezberdinak sailatzen direlarik horretarako egokitutako ontziekin.	☹
Prestakuntza, sentsibilizazioa eta komunikazioa	• Itsasondon ez da udaleko langileentzat aparteko sentsibilizazio kanpainarik burutu	☹

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
13.1. Ingurumen irizpideak udal kudeaketan txertatzeko programa.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Alor honekin lotutako udal plangintza edo arudirik ez dago.
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
Gobernu Kontseiluaren Akordioa (2008ko apirilaren 29koa), EAEko administrazioan eta sektore publikoaren kontratazioan gizarte eta ingurumen irizpideak eta beste politika publiko batzuk txertatzeari buruzkoa. Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana 2008-2012. EAEko Hondakin Ez arriskutsuen Prebentzio eta Kudeaketa Plana 2008-2011. Ingurumen Esparru Programa 2007-2010. Ingurumen Kontsumo Iraunkorraren Euskal Plana 2006-2010.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Erosketa eta kontratazio publiko berderako plan bat diseinatu, ezarri eta jarraipena egitea. Udalaren beste instalazio eta zerbitzu batzuetan ingurumen kudeaketarako sistemak ezartzea. Udal eraikinetako ur eta energia kontsumoaren inguruko kontrola areagotzea, eta uraren eta energiaren kontsumo arduratsua bultzatzeko ekimenak bideratzea.
Udalaz gaindiko eskumena
Ez da identifikatu.

KLIMA ALDAKETA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

4. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

10. Tokian tokikotik mundu globalera

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Klima aldaketari egindako ekarpenak	• Berotegi efektuko gasen (BEG) inbentarioa ez da egin, eta hortaz ez dakigu udalerrian eta Udalean zer BEG igorpen egiten diren.	☹
Klima aldaketaren aurkako ekimen zehatzak	• Udal administrazioak ez du gauzatu klima aldaketaren aurkako ekimen espezifikorik, eta alor honetan ez du planifikazio zehatzik. • Alor pribatuan, udalerriko eragileek ere ez dituzte garatu edo ezarri klima aldaketaren aurkako tresna espezifikoak.	☹
Klima aldaketara egokitzea	• Udal administrazioak ez du egin klima aldaketak udalerrian eragin ditzakeen ondorioen ebaluaziorik.	☹
Sentsibilizazioa	• Sentsibilizazio mailan ere klima aldaketa gaitzat hartuta ez da ekimen zehatzik gauzatu udalerrian.	☹

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
Ez dago.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Alor honekin lotutako udal planik edo araudirik ez da identifikatu.
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
Klima Aldaketaren Udal Ordenantzaren eredua (*Udala eta Klima II* Ekitaldean landua). Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Plana 2011-2020. Klima Aldaketaren EAEko Legea (lantzen).

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Berotegi Efektuko gasen inbentarioa egitea eta igorpenak murrizteko helburuak ezarri eta hauek betetzeko neurriak hartzea. Alkateen Ituna izenpetu eta Energia Iraunkorraren Ekintza-Plana egin eta ezartzea. Klima Aldaketari buruzko sentsibilizazio eta informazio ekintzak burutzea herritarrentzat
Udalaz gaindiko eskumena
Mendiak behar bezala kudeatzea, karbono hustubide egokiak izan daitezen.

3.3. SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA

KOMUNIKAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

4. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak

10. Tokian tokikotik mundu globalera

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Komunikazioa	• Udalak sustatzen dituen ekimenen, ekintzen eta ekitaldien berri emateko biderik ohikoena buzoneoa bada ere, azken urtetan komunikatzeko bide berriak ere erabiltzen ditu udalak: herriko gune ezberdinetan kokatutako pantailak eta SMS bidezko abisu zerbitzua. Prentsako udal kronikak ere erabiltzen dira. • Udaleko web orria indartu beharreko tresna bat da. • Itsasondo 2.0. Herri Aldizkaria dago Itsasondon. Urtean lau ale argitaratzen dira. Bertan herriko informazioa argitaratzen da: udala aurrera eramaten ari den ekimenen berri eman, elkarteen ekintzen berri eman, elkarrizketak, etab. • Udalerriko berriak eskualdeko Goiberri aldizkarian ere ateratzen dira. • Udaleko webgunean ez dago Tokiko Agenda 21eko informazio bereizturik (diagnostiko, ekintza-plan, foroetako akta, ebaluazio programako emaitzak, etab. Falta dira).	😐
Sentsibilizazioa	• Tokiko Agenda 21en barruan egin izan diren sentsibilizazio ekintzak positiboki baloratzen dira, bai landutako gaiengatik, egindako ekimenengatik eta hauetaan izandako parte-hartzeagatik. Hala ere azken urteetan, sentsibilizazio kanpainarik egin ez izana ez da ongi baloratzen.	😐
Parte-hartzea	• Gaur egun, eta Agenda 21arekin lotuta, ez dago udalerrian herritarren parte-hartze organo egonkorrik. • Sektorekako parte-hartze organoei dagokionez, hainbat izan dira Itsasondoko Udalak bultzatu izan dituen mahaiak gai ezberdinak lantzeko (azkena Hondakinen bilketa sistemarekin lotutakoa). • Itsasondok Gipuzkoako Foru Aldundiko Parte-hartze zuzendaritzatik bideratutako ekimen ezberdinetan aktiboki parte hartzen du	😊

Elkarte ehundura	• Itsasondo herri txikia izanik ere, herrian hainbat talde/elkarte biltzen dira: eliza ingurukoa, jubilatuena, Arbelaitz herriko elkarte gastronomikoa, Ijito Kirol Elkartea, Gazte Asanblada, etab. Gipuzkoako batez bestekoarekin alderatuz (7,3 elkarte 1.000 biztanleko), Itsasondok elkarte ehundura aberatsa duela esan dezakegu.	☺

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
14.1. Parte-hartzea lantzeko programa. 14.2. Informazio bideak hobetzeko programa.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Alor honekin lotutako udal araudirik ez dago.
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (III.Titulua, IV.kapitulua: VII.Atala. Herritarren parte-hartzea plangintzaren formulazioan, tramitazioan eta onarpenean). 3/1998 Legea, Otsailaren 27koa, EAEko Ingurumena babesteko Lege Orokorra.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Udalaren komunikazio bideak dibertsifikatzn jarraitzea (sare sozialak). Herritarren parte-hartze foroen proposamenen jarraipena egin eta erantzutea. Parte-hartze gune berriak bultzatu eta daudenak indartzea.
Udalaz gaindiko eskumena
Ez da aurkitu.

BARNE KOORDINAZIOA ETA ZEHARKAKOTASUNA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

1. Gobernatzeko moduak

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Barne koordinazioa eta komunikazioa	• Iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiak *Ingurumena* deritzon batzordean lantzen dira.	
Tokiko Agenda 21 kudeatzeko ereduaren ezarpena	• Itsasondoko Ekintza planak ingurumen zein gizarte izaera nabarmena du. Lurralde izaera ere badu. • Azken urteetan, ekintza planaren berrikuspen baten beharra nabarmendu izan da, eta berrikuspena eman aurretik ez da Ebaluazio eta Adierazle programetan parte hartu. • Udal txikia izaki, erraz bermatzen da prozesu hauetan udaleko zerbitzu edo sail guztien parte-hartzea.	
Baliabide teknikoak	• Udalak ez du ingurumen edo agenda 21eko teknikaririk. • Eskualde mailan badago ingurumen gaietarako azpikontrataturiko teknikari bat Goiekin (Eskualdeko Garapen Agentzian).	
Buruzagitza politikoa	• Agenda 21aren berriksupenaren beharra Udaleko zinegotzi ezberdinek eta alkatak gidatuta burutzen ari den prozesua da. • Ebaluazio eta Jarraipen programetan parte hartu izan denetan, alkate eta zinegotziaren aurrean aurkeztu izan dira emaitza guztiak.	

URREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
Ez dago.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Alor honekin lotura duten udal araudirik ez dago.
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
Alor honekin lotura duen udalaz-gaindiko araudirik ez da aurkitu.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Tokiko Agenda 21 modu aktiboan kudeatzea. Ebaluazio eta Adierazle programetan parte-hartzen hastea berriz ere.
Udalaz gaindiko eskumena
Ez da identifikatu.

3.4. GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

BIZTANLEAK

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

9. Berdintasuna eta justizia soziala

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Lurralde kokapena eta testingurua	• Itsasondo Goierri eskualdean kokatuta dagoen udalerria da. Hedaduraz, hain txikia ez den arren (8,90 km2), biztanleriari dagokionez 2012an 677 biztanle zituen. Beraz, biztanleriaren dentsitatea 76,07 bizt/km2koa, Gipuzkoako batazbestekoa baino askoz ere txikiagoa da (367 bizt/km2). • Itsasondo, lurraldeko komunikazio bide nagusien artean ondo kokatuta aurkitzen da: estatuko salgaien korridoren nagusiak (trenbide zein errepide) herritik igarotzen dira. Honek asko errazten du udalerrira iristea, nahiz udalerriaren eta inguruaren arteko komunikazioa.	☺
Biztanleriaren bilakaera	• 80 eta 90. hamarkadan biztanleriak behera egin bazuen ere, Itsasondok 2004tik biztanleriak goranzko joera etengabea izan du. • 80. eta 90. hamarkadetan bertako biztanleak inguruko gune industriaguneetara joan zirelako. Mende berriarekin batera, herrian etxebizitzak egin eta goranzko joerari mantendu dio. ITSASONDOKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA (2003/2012)  *Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap*	☺
Egitura demografikoa	• Itsasondon biztanleriaren piramideari dagokionez, %19,65, 14 urtetik beherakoek osatzen dute, %18,76; 65 urtetik gorakoek eta gainerakoa 14-65 urte bitartekoek. • Azken hamar urteak alderatuta, haurren kopuruak gora egin du (2003an biztanleriaren %12,59 zen 14 urtetik beherakoa). • 75 urtetik gorako biztanleek, biztanleria osoaren %10,93a osatzen dute, (2003an %8,69 zen portzentaia hau). Beraz, azken hamarkadan biztanleriaren gaztetze bat eman dela nabarmentzen da.	☺

HAUR TASAREN ETA GEHIEGIZKO ZAHARTZE TASAREN BILAKAERA



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap.

Mugimendu Naturala

- Azken hamar urteotan, zenbait gorabeherekin, baina jaiotza tasak gorantz egin du nabarmen. Heriotzak, aldiz, manetndu egin dira. Aztertutako urte hautean, orohar, jaiotza gehiago izan dira heriotzak baino.

	Jaiotzak guztira	Heriotzak guztira	Hazkunde begetatiboa
2001	4	4	0
2002	7	6	1
2003	4	6	-2
2004	5	6	-1
2005	7	2	5
2006	8	6	2
2007	13	4	9
2008	11	5	6
2009	17	6	11
2010	15	2	13
2011	13	7	6

Iturria: Eustat

Migrazio mugimendua

- Itsasondon erroldatuta dauden atzerritarren kopurua handituz joan da 2003tik. 2012an biztanleriaren %7,83 ziren atzerritarrak. Gipuzkoako biztanle atzerritarren batez bestekoaren %7,52 parekoa (2011an).
- Kanpoko migrazio balantzari dagokionez (EAE barruko nahiz kanpoko herritarren arteko kanpo emigrazioaren eta inmigrazioaren aldea), 2003-2010 urteen artean balantza positiboa izan zen (irteerak baino sarrerak gehiago). Salbuespenak 2003 eta 2004ean aurkitzen ditugu, -%milaren -5,037 eta -7,14koa izan zenean.

	Biztanle atzerritarrak guztizkoarekin alderatuta (%)	Kanpoko migrazio balantza (%milaren)
2003	1,95	-5,37
2004	2,53	-7,14
2005	3,19	6,92
2006	5,08	6,66
2007	5,74	8,05
2008	5,23	9,38
2009	6,01	18,59
2010	6,51	1,51

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Saila. Udalmap.

Biztanleriaren lurralde banaketa

- Itsasondon honako auzo hauek daude: San Juan auzoa, Urki Auzoa, Goierri auzoa eta Herrigunea.

JARDUERA EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

8. Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra

9. Berdintasuna eta justizia soziala

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Jarduera ekonomikoaren eboluzioa eta egitura sektoriala	• Itsasondoko ekonomia sektoreen balio erantsiaren ondorengo grafikoan ikusten den moduan, balio handiena industria sektoreari dagokio, jarraian zerbitzuak, eraikuntza eta azkenik lehen sektorea aurkitzen delarik. Banaketa hau eskualdekoaren parekoa da, Goierrin pisu handiena ere industriak daukak (%55) eta zerbitzuen sektoreak (%25). Lurralde mailako datuekin alderatuz Gipuzkoan industriak pisu bajuagoa dauka, %32; eta zerbitzuek handiagoa (%60). • Azken hamarkadan eraikuntzaren balio gordina nola jeitsi den nabarmen antzematen da. BALIO ERANTSI GORDINAREN ALDERAKETA, SEKTOREKA  *Iturria: Eustat* • Establezimendu sorrera tasari erreparatuz, konturatzen gara 2008tik beheranzko joera izan duela, 2011. Urtean 1,49an kokatzeraino.	☺

ESTABLEZIMENDU SORRERA TASA 1.000 BIZTANLEKO



Iturria: Udalmap

- Itsasondoko establezimendu industrialek bataz beste, 30,89 langile zituzten 2012an (Iturria: Udalmap). 2006etik adierazle hau 28 langiletik gora kokatu izan da.
- Itsasondoko enpresa jardueraren banaketari dagokionez, establezimendu gehienak merkataritza, garraio eta nekazaritzari dagozkionak dira (guztizko establezimendu kopuruaren herena). Ondoren, industria establezimenduak dira kopuruz garrantzitsuenak (9).

ITSASONDOKO ENPRESA JARDUERAREN BANAKETA 2012



Iturria:Eustat

Lehen sektorea

- Itsasondonlehen sektoreak BEGi eginiko ekarpena %1ekoa da 2000. urtetik, ekarpen hau mantendu egin da.

- 2006an lagun bakarrak lan egiten zuten lehen sektorean, biztanleri guztiaren %0,16ak..

Industria eta eraikuntza

- Itsasondon 3 industriagune nagusi daude: Jasori dagokiona, Ibaiondo eta Herrigunean kokatutako enpresek osatua. bat dago, Isues izenekoa. Bertan jarraian azaltzen diren enpresak kokatzen dira (Iturria: Goierriko enpresa sarearen mapa birtuala, Goieki). Hauetatik langile kopuruari dagokionez garrantzitsuena Jaso da:

TALLERES JASO INDUSTRIAL S.L.
CONSTRUCCIONES SEBASTIAN RAMOS S.L.
ETXEAR MARGOAK S.L.
PAPELERÍA DE IMPRESIÓN MANIPULADOS S.A.
PINTURAS ORDIZIA S.L.
RÓTULOS ZIURKILAN S.L.
SAT JASO INDUSTRIAL S.L.
TALLERES ALDARRI S.L.
ANDOLA 07 S.L.
CALDERERÍA Y MONTAJES URBIL S.L.
GOFRAPAPEL S.L.
MERKALDE S.L.

- Industrian aritutako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren portzentaia % 38,79 da (2010) Itsasondon. 2001etik, hala ere, beheranzko joera izan du portzentaia honek:

INDUSTRIAN LAN EGITEN DUEN 16 URTETIK GORAKOEN BIZTANLERIA (%) (2001-2010)



Iturria: Udalmap

- Bigarren sektorearen barruan eta eraikuntzari dagokionez, 5 establezimendu zeuden 2012an (Eustat). 2008an 9 establezimendu egon ziren.
- Lanpostuei dagokionez, berriz, eraikuntzan aritzen direnen portzentaia ere beheruntz joan da:

ERAIKUNTZAN LAN EGITEN DUEN 16 URTETIK GORAKOEN BIZTANLERIA (%) (2001-2010)



Iturria: Udalmap

Zerbitzu sektorea

- Zerbitzu sektorean lan egiten duten 16 urte edo gehiagoko biztanleen ehunekoa mantendu egin da, %51,96an kokatuz 2010ean. 2006an portzentaia hau %51,09koa zen. *2001eko daturik ez da eskuratu.

- Zerbitzu establezimenduen kopurua mantenduz joan da azken 3 urteotan, egun 21 establezimendu daudelarik. Hauetatik garrantzi handiena garraioarekin lotutako azpisektoreak dauka.

	2010	2011	2012
Garraio, komertzio eta ostalaritza	15	12	12
Informazio eta komunikazioa	2	2	1
Aktibitate profesionalak	1	1	2
Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna	5	5	5
Aktibitate artistikoak eta beste zerbitzuak	1	1	0

Iturria:Eustat

Turismo eta ostalaritza

- Itsasondon ostalaritza alorrean kokatutako honako establezimendu hauek aurkitzen ditugu: Kaxintane Ostatua eta Nautiko Taberna/Jatetxeak eta Izaskun Pentsioa.
- Turismoarekin lotutako ekintza guztiak eskualde mailan dinamizatu eta koordinatzen ditu Goitur-ek. Goiturrek Goierriko ondare, paisaia, udalerri, inguru, zerbitzu turistikoa etab.en informazioa eskaini eta promozionatzen du. Produktu turistiko ezberdinen eskaintzaren inguruko informazioa ere zabaltzen du.
- Itsasondon ez dago Q ziurtagiria duen establezimendurik Zigilu honek Espainiako turismo Kalitaterako Institutuak (ICTEk) ematen duenak, kalitatea ziurtatzen du, turismo enpresen zerbitzuan, instalazioetan eta kudeaketan.

ENPLEGUA ETA LAN MERKATUA

Jardueren eta landunen tasa, langabezia eta kontratazioa

- Gaur egun Itsasondon 15 eta 64 urte arteko 417 pertsona daude erroldatuta. Okupazio tasa (azken datua 2006koa da) %72,18 koa da.
- 2012an INEMen erregistratutako biztanleria langabea %11,49koa zen. INEMen erregistratutako biztanleriari dagokionez, hona hemen eboluzioa (16-64 urte bitartekoen %):

LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA (2003-2012)



Iturria:Udalmap

- Azken urteetan asko egin du gora langabeziak, 2007tik ia laukoiztu hirukoiztu egin delarik.
- Emakumezkoen langabezia tasa hanidagoa da, %14, gizonezkoena baino, %7,66 (2011ko datua). Gipuzkoan, orohar, emakumezkoen langabezia altuagoa da gizonezkoena baino.
- Datuak adinaren arabera aztertuz, Itsasondoko langabeen %10,88 inguruk 45 urtetik gora dauzkate. Adin tarte honetakoen langabezia ere handituz joan da azken urteotan:

INEMEN ERREGISTRATUTAKO 45 URTE EDO GEHIAGOKO LANGABEAK (45-64 URTEKO BIZTANLEEN %)



Iturria:Udalmap

- Itsasondon kontratuei dagokionez, 1.000 biztanleko 152,24 kontratu erregistratu ziren 2012an. Erregistratutako kontratuek ere beheranzko joera izan dute 2007tik:

ERREGISTRATUTAKO KONTRATUEN KOPURUAREN BILAKAERA (1.000 BIZTANLEKO)



Iturria: Udalmap

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
3.1. Enpleguaren sustapenerako programa

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Alor honekin lotutako udal araudirik ez da identifikatu.
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
7/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Merkataritza Jardueraren Legea aldatzen duena. 16/2008 Legea, abenduaren 23koa, Turismoaren Antolaketa Legea aldatzen duena. Merkataritza Ekipamenduen Sektorekako Lurralde Plana. EAEko Lan Segurtasuna eta osasun Plan Estrategikoa (2007-2010) EAEko Enplegu Plana.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Informazioa ematea, aholkatzea, trebatzea, bitartekari gisa aritzea eta kontratatzeko aukerak ematea. Orientazioan, prestakuntzaren eta langabeen birziklapenaren aldeko apustua egitea, lan merkatuan aukera gehiago emango dizkieten jarduera sektoreetara bdieratzeko. Ekintzailetza bultzatu. Hirugarren sektorea indartzeko aisia, kultura, kirola, turismoa etab…elkarlanean aritzea. Aisialdiarekin eta natur ingurunearekin lotutako turismo jarduerak bultzatzea.
Udalaz gaindiko eskumena
Goierriko gainerako udalerriekin batera sarean lan egitea garapen ekonomiko eta enplegu alorrean.

GIZARTE ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

7. Osasunaren aldeko tokiko ekintza

9. Berdintasuna eta justizia soziala

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Gizarte arazoak	• Itsasondoko gizarte arazoei erreparatuz gero, egoera inguruko herrietakoen antzekoa da. • Menpekotasuna: biztanleriaren %18,76ak 65 urte baino gehiago dauzka, eta %10,93k 75 urte baino gehiago (2012). • Pobrezia mailari dagokionez (Udalmap) Itsasondon 1.000 biztanletik 6,34ak jaso zuen Oinarrizko Errenta 2008an. Gizarte Larrialdietarako laguntza 1.000 biztanletik 3,22ak (2007an). . Azken datua 2008koa dela kontutan hartu behar da, eta datu honetan krisi ekonomikoak eragina izan dezakeela.	
Gizarte zerbitzuak eta ekipamenduak	• Itsasondoko Gizarte Zerbitzuak, gizarte zerbitzuen balizko erabiltzaileei arreta, orientabide eta balorazio zerbitzuak eskaintzen dizkie eta gizarte laguntza eta baliabideak kudeatzen ditu. • Itsasondon ez dago larrialdi egoeretarako etxebizitzarik, ezta genero indarkeriaren biktimentzako babes etxebizitzarik. Hala ere, Udalak 3 pisu ditu, alokairu sozialekoak. • Udalerrian ez dago adinduentzako ez zaharren egoitza, ezta eguneko zentrurik ere.	
Koordinazio sistema	• Itsasondoko Udaleko gizarte Zerbitzuen Sailak udaleko gainerako sailekin eta beste sistema publiko batzuekin harreman estua du (ikastetxeak, osasun zentroa, Lan saila…).	
Gizarte zerbitzuen udal gastua	• Atal honetako azken datuak 2005ekoak dira. • 2005ean, Itsasondon, udal aurrekontuetako ohiko gastuetatik biztanleko 38,17€ bideratu ziren gizarte zerbitzuetarako, aurreko urteetan baino gutxiago. Gipuzkoako batazbestekoaren azpitik dago (57,49 €).	

UDAL AURREKONTUETAKO GIZARTE GAIETARAKO OHIKO GASTUA BIZTANLEKO (€)



Iturria:Udalmap

- Gastu osoari dagokionez, 2005ean biztanleko 243,42 €takoa izan zen, Gipuzkoako batezbestekoa baino (350,09 €) nabarmen gutxiago.

UDAL AURREKONTUETAKO GIZARTE GAIETARAKO GASTU OROKORRA BIZTANLEKO (€)



Iturria: Udalmap

BERDINTASUNA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egoera	• Lan esparruan, Itsasondoko emakumeen erregistratutako langabezia tasa (%11koa) handiagoa da gizonezkoena (%7,66) baino. •	
Udal kudeaketa berdintasun arloan	• Itsasondon Berdintasun Plana egin zen 2008an. Bertan, berdintasun alorrean Itsasondon jarraitu beharreko ildo, programa eta ekintza zehatzak planteatzen ziren. • Egun, plangintza berriz ere aztertu eta ekimenak aurrera eraman beharra ikusten da. • Udal ordezkaritzari dagokionez, ordezkaritza osatzen duten 5 lagunetatik bat da emakumezkoa.	

Bizikidetza eta herritarren segurtasuna	• 2012an delituen tasa 1.000 biztanleko 37,31koa izan zen, aurreko urtetakoak baino bajuagoa. • Itsasondon ez dago Udaltzainik. • Azkenik, udalerrian erregistratutako zirkulazio istripuen tasa 1.000 biztanleko 32,84koa izan zen 2012an, bajua.	☺
OSASUNA ETA OSASUN ZERBITZUAK		
Osasuna eta osasun zerbitzuak	• Herrian Familia Mediku bat eta erizain bat dago. • Oso ongi baloratutako zerbitzua da medikuarena. • Ez dago mediku espezialistarik (Ordiziara, Beasaina edo Zumarragako Hospitalean daude). • Herrian botika bat dago.	☺
TELEKOMUNIKAZIOAK ETA IKT-AK		
IKT eta telekomunikazioetarako irisgarritasuna	• Herrian badago ez dago internet zerbitzu azkarrik. • Udalerriak KZgunea du.	😐

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
1.2. Gizarte baliabideak ezagutzera emateko programa. 2.1. Elkarbizitza sustatzeko sare berriak sortzeko programa. 2.2. Integrazioa eta elkarbizitza sustatzeko programa. 15.1. Udal politika guztietan genero berdintasun ikuspegia txertatzeko programa.

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Gizarte zerbitzuetako plangintza (2007). Berdintasun Plana (2008).
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
3/2009 Legea, haurrak eta nerabeak babesteko legea aldatzen duena. 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuen Legea. 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familien Babeserako Legea. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2010-2014) Erakundeen arteko Gizarteratzeko Plana. Erakundeen arteko familiak Babesteko Plana EAEko Inmigrazio Plana

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Adinduei eskainitako gizarte zerbitzuen hobekuntza bultzatzea. Udalak sustatzen duen zerbitzu eta laguntza multzoarekin lotuta, emandako laguntzen jarraipena egitea. Udalerrian izan daitezkeen gizarte zerbitzuen beharren azterketa egitea.
Udalaz gaindiko eskumena
Ez da identifikatu.

HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

5. Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea

9. Berdintasuna eta justizia soziala

AZPIEREMUA	DIAGNOSTIKOA	BALORAZIOA
Hezkuntza eskaintza	• Herrian Haur Eskola (0-2) eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (2-12) eskeintzen duen Herri Eskola dago. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo ikasketak egiteko aukera Ordiziak eskaintzen du. • Haur Eskolak 21 plaza baditu ere, egun 4 plaza daude okupatuta (Haur Eskolak Partzuergoko datuak). • Itsasondoko Herri Eskola, *Gipuzkoako Eskola Txikien* barruan kokatzen da. Matrikulazioari dagokionez, azken hamarkadan nabramen egin du gora Itsasondoko Herri Eskolan matrikulatutako haur kopuruak. 2001ean 11 ziren Haur Hezkuntzan eta 10 Lehen Hezkuntzan matrikulatutako ikasleak. 2011an, 45 Haur Hezkuntzan eta 30 Lehen Hezkuntzan (Eustat).	☺
Hezkuntza eskaria	• Itsasondon biztanleriaren banaketa ikasketa mailaren arabera honako hau da: **1996 / 2001 / 2006** **2012 Itsasondo** Guztira Analfabetoak: 11 / 10 / 8 Ikasketa gabeak: 115 / 62 / 77 Eskolaurrea eta lehen mailakoak: 254 / 233 / 209 Lanbide-heziketakoak: 90 / 86 / 84 Bigarren mailakoak: 48 / 71 / 79 Erdi-/goi-mailakoak: 27 / 26 / 38 Goi-mailakoak: 35 / 35 / 43 *Iturria: Eustat* • Hezkuntza eskariak gora egin du azken urteetan, eskola adinean dauden biztanle kopuruaren (bereziki haur ezkuntzan dauden biztanle kopuruaren) hazkundeari esker.	☺

EUSKARA		
Euskalduntze maila	• 2011an egindako Eustaten biztanle eta etxebizitza estatistikan argitaratutako emaitzen arabera, Itsasondoko biztanleen artean euskararen ezagutza eta erabilera ertaina da. Itsasondoko biztanleen %53ren ama hizkuntza euskara da eta %49,4k etxean euskaraz hitzegiten du. • Ama hizkuntza gaztelera dutenen portzentaia %32,38koa da eta etxean gaztelera erabiltzen dutenena, %32,83. • Bilakaerari dagokionez, 2006an %57,69 zen ama hizkuntza euskara zutenen portzentaia eta %51,77 etxean geuskara erabiltzen zutenena. Beraz, erabileran eragin nabarmenik izan ez badu ere azken urteetan, ama hizkuntza euskara zeukatenen portzentaia jeitsi egin da.	
Ekipamenduak eta bitartekoak	• Itsasondon euskara ikastaroak antolatzen dira eta Udalak diruz laguntzen ditu. Ikastaro hauek AEK-k ematen ditu. Urteren batean Itsasondon talderik osatzen ez bada, Ordizian ematen dira euskarako ikastaroak (2012).	
Udal politikak	• Itsasondo UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide da.	
Euskara Udal jardueran	• Itsasondoko Udal langile guztiak euskaldunak dira, ezarritako hizkuntz eskakizuna edo maila handiagoa dutelarik guztiek.	
KULTURA		

Kultura ekipamenduak eta hauen erabilera	• Udalerriko kultur ekipamendua honako hauek osatzen dute:
	  • Itsasondoko Liburutegi Publikoak (osatu, bazkideak)
	  • Gela balioanitza
	  • Ludoteka
	  • Gaztetxea	

Kultura jardueran eta parte hartzea	• Itsasondoko herritarren parte-hartzea kultura jardueretan nahiko garrantzitsua da; herritarrek kultur jardueretan duten erantzuna ona izaten delarik. • Hala ere, herritar berrien parte-hartzea gehiago kostatzen da. • Urtean zehar honako ekintza hauek antolatzen dira: Kultur Astea, Uda Kanpaina, San Juan Sua, Abuztuko Jaiak, Iraileko Jaiak, ikastaroak (talo etab.), kirol probak, etab.	

KIROLA		
Kirol ekipamenduak eta horien erabilera eta kudeaketa eredua.	• Itsasondoko kirol ekipamenduak frontoia eta gimnasio-gela dira. • Frontoia herritarrek zein inguruko herrietakoek erabiltzen dute. • Lehen Udalak antolatzen zituen Aerobic-eko ikastaroak. Egun, eskolan ematen dira, bertako Guraso Elkartearen bdiez antolatuta.	

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
1.1. zerbitzu berrien garapen eta hobekuntzarako programa. 4.1. Euskararen erabilera indartu eta bultzatzeko programa. 5.1. Kirol beharrak aztertzeko programa. 6.1. Kultur ekintzak antolatzeko programa

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Gazte Plana 2007.
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
Kirolaren Euskal Plana Kulturaren Euskal Plana Euskara normalizatzeko planak

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Euskara UEMAko kide izaten jarraitu eta euskararen jakintza eta erabilera bultzatzeko neurriak hartzea. **Kultura** Kultura programazioa osatzen joatea, gazteentzat bideratutako ekintzak gehiagotuz. Kultur ekipamenduen aprobetxamendua areagotzea, ekimen berriak txertatuz. **Kirola** Kirol jarduera eskaintza zabaldu eta dinamizatzea Eskualdeko gainerako herrien azpiegitura, erabilpena eta jardueren arteko koordinazioa bultzatzea.
Udalaz gaindiko eskumena
Ez da lehentasunezko arlorik identifikatu.

ETXEBIZITZA

Loturiko Aalborgeko konpromisoa:

5. Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea

9. Berdintasuna eta justizia soziala

Etxebizitzen ezaugarriak	• Itsasondoko bizitegi lurzoruaren dentsitatea, hektareako 30,16koa da, Gipuzkoako batazbestekoa baino nabarmen bajuagoa (%57,58). • 1970, 1980 eta 1990ko hamarkadetan, inguruko herrietan (Ordizia eta Beasainen batez ere), eman zen industria garapena zela medio, itsasondoar asko inguruko herrietara joan zen bizitzera. 2.000. urtetik aurrera, etxebizitza berriak egin ziren, biztanleak errekuperatuz. • 1996an 274 etxebizitza zeuden eta 2012an 323 (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia). • Itsasondon Udalmapen arabera, 2011ean %16,31 etxebizitza hutsik zeuden.	☺
Etxebizitzen birgaikuntza	• 50 urtetik gorako etxebizitzek guztizkoaren %35,08 suposatzen dute. Gipuzkoan portzentai hau %15,25ekoa da. • Itsasondoko etxebizitzen erosotasun tasa 2006an %69,41ekoa zen, Gipuzkoako batazbestekoaren oso parekoa (%71,36). • Gaur egun, hiri lurzoruko etxebizitzen egoera orokorra ona da.	☺
Etxebizitzen eraikuntza	• 2012an Itsasondon 323 etxebizitza zeuden. 1996tik 2012 urteen artean 49 etxebizitza gehiago egin ziren. • Etxebizitza berrienak Kale Nagusian, Beitin eta Toki Goxo inguruan egin dira. • Itsasondon azken 5 urteetan ez da Babes Ofizialeko etxerik egin. Udalsarea 21en kide diren 1.000 biztanletik beherako udalerrien kasuan, 2006-2011 artean Babes Ofizialeko 10 etxebizitza eraiki dira batazbeste. • 2011. Urtean 1.000 biztanleko 10,34ak z Etxebiden etxebizitza eskaera egina zeukan. • HAPOan aurreikusitakoaren arabera 138 etxebizitza egitea aurreikusten da, hauetatik 36 Babes Ofizialekoak liratekeelarik.	☺

Etxebizitza eskaria eta eskaintzaren arteko balantzea

- Udalerriko Babes Ofizialeko etxebizitza eskaerak Gipuzkoako batazbestekoa baino askoz bajuagoa da (Gipuzkoan 1.000 biztanleko 46,66koa zen 2009an).
- Etxebizitza berriak (merkatu librekoak) egiteko baimenei erreparatuz, azkenak 2011an eman ziren. Hona hemen hauen bilakaera:

ETXEBIZITZA BERRIAK EGITEKO BAIMENAK (2003-2011)



Iturria: Udalmap

- Babes Ofizialeko etxebizitzen eskaera egoteak, eta azken urteetan etxebizitza berriak egiteko lizentzien beherakada bat eman izanak, eskariari erantzuteko lurzoru gehiagoren beharra erakusten dute.

AURREKO TOKIKO EKINTZA PLANA
Lotura duten ildoak eta programak
7.1. Etxebizitza programa

LOTURA DUTEN PLANAK ETA ARAUAK
Udalerrikoak
Itsasondoko HAPO (2010)
Gipuzkoakoak eta EAEkoak
2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren 2006-2009 aldirako Etxebizitza Gida Plana. Babes ofizialeko etxebizitza erregimena: Martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, babes ofizialeko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitza eta lurzoru arloko finantza neurriei buruzkoa (2008ko martxoaren 28ko 59. EHAA). Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Agindua, etxebizitza beharraren zirkunstantziei buruzkoa (abenduaren 31ko 249. EHAA) eta maiatzaren 17ko 111/2005 Dekretua. 2002ko abenduaren 30eko Agindua, babes ofizialeko etxebizitzen sustapenerako laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa. Abenduaren 30eko 316/2002 Dekretua. Horren bidez, hutsik dauden etxebizitzei buruzko programa sustatu egiten da, haren araubide juridikoa ezartzen da, eta haren kudeaketa Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.ren esku (Visesa) uzten da. Eta 2003ko apirilaren 22ko Agindua, hutsik dauden etxebizitzei buruzko programa lagatzeko baldintzei eta esleitzeko prozedurari buruzkoa. Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuaren 2006ko abenduaren 29ko Agindua, erregimen orokorreko eta erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak egitea lehentasunezko helburu duen ondare publikoa osatzeko, lurzoruak kostu bidez eskuratzeari buruzko finantza neurriei buruzkoa (2007ko urtarrilaren 25ko 18. EHAA). Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurralde Plan Sektoriala

LEHENTASUNEZKO JARDUERA ARLOAK
Udal eskumenekoak
Udalerriko beharrei egokitutako etxebizitzak egitea. Hutsik dauden etxebizitzak alokairura edo beste erabilera batetara bideratzea.
Udalaz gaindiko eskumena
Hutsik dauden etxebizitzak alokairura edo beste erabilera batetara bideratzea.